

XABIER LETONA

maltzagatik

ETAr a bideratzeko polizi bultzada

ESPAINIAKO LEGEAREN INDARRA

erori da Segiko 31 gazteren bizkar eta espetxean dira. Eta bide batez, Sakabanaketa Legea medio, haien familien bizkar ere bai. Egotzitako delitu zehatzak: udako eskolak eta mendi martxak antolatzea, kamisetak saltzea, zozketak antolatzea...

Beste behin ere "dena da ETA" sare erraldoi hori erabili da ehizaldi honetarako. Espainiak lege bihurtu du, baina euskal gizartearen gehien-goak behin eta berriz eta modu askotan arbuia du. Ikuspegi orokorrik ez galtzeko komeni da hori gogoratzea, bestela, komunikabide nagusienetan barreiatzen den irudiarekin, pentsa liteke euskal gizarte osoak bat egiten duela halako polizia operazioekin. Eta kontrakoa da, gehien-goak aurka dago.

Ikuspegi politiko-polizial teknikoa-go batetik aztertuta, Espainiako Barne Ministeriotik aditzera eman denez, atxiloteta hauek ezker abertzalearen barruan ematen ari den eztabaidan biolentzia alboratzearen aldekoen alde egiten dute, Segikoak ETArengatik gertuen daudenak direlako.

Hau da, orain Segikoak atxilotzen dira Otegiren lerrokoak indartzeko -ETArekin aurrean-, eta orain hilabete Otegi eta horiek ETArekin agindutara ari zirelako. Ez hanka ez buru, baina hori gutxienez da helburutzat anabasa duenarentzat.

Izatez, tankera honetako operazioek zerbait indartzen badute, hori indarkeriaren erabilera da, ENAMeko gazteei politika egitea ukatuz, bestelako ateak zabaltzen zaizkielako. Zer espero behar da, bada, egungo Euskal Herrian armen erabilera justifikatu eta egoki ikusten duen gazteari bide politikoen erabilera ukatzen bazaio? Eta zer espero

ARGAZKI PRESS / JON HERNAEZ



Iragan larunbatean milaka pertsonen salatu zuten Bilbon Segiren aurkako operazioa.

behar da, bada, udako ikastaroak eta mendi martxak antolatzeagatik 8-10 urteko espetxe zigorra beregatatzen duenaren aldetik? Horietako gazte askok ETAn jarduteko benetako pausua ematea.

NAFARROAKO EUSKARAZKO

hedabideak 240.000 euroko dirulaguntzarik gabe geratuko dira azkenean 2009an. Urte hasieran 9.567 euroko dirulaguntza zuten Nafarroako aurrekontuetan, baina Euskarabideako zuzendari Xabier Azanzak, hedabideetako ordezkariari behin eta berriz agindu die 240.000ko dirulaguntza deialdia aterako zela.

UPN eta CDNren gobernu apurketa dela eta, Alberto Catalanek ordezkatu zuen Carlos Perez Nievas Hezkuntza Sailan, eta Catalanek diru hori beste behar batzuetara bideratzea erabaki du. Euskararen Legeak euskarazko komunikabideak diruz lagundu behar direla agintzen badu ere, ez du diru kopuru zehatzik aipatzen eta Nafarroako Gobernuaren iritziz, 9.567 euro nahikoa dira 30etik gora komunikabide laguntzeko.

Erdarazkoekin ez du berdin jokatzeko. Areago, erdal mundutik euskarazko komunikabideei -eta euskal kulturari oro har- sarri leporatzen zaie diru-laguntzetatik bizitzea.

Nafarroan mundua aldrebes ari

da sarri, batez ere hizkuntza kontuetan. Euskarazko komunikabideek aurtengo 9.467 euro jasoko badute, gazteleraz lan egiten duten hiru telebistek 2.998.207 euro jaso dituzte. Zeresanik ez, hirurak Nafarroako Gobernuaren ikuspegia hedatzeaz ondo arduratzen direnak. Horrela banatzen dira laguntza hauek:

- Televisión Popular de Navarra S.A.-k 892.335 euro.

- Editora Independiente de Medios de Navarra S.A. (Canal 6): 1.207.129 euro.

- Canal 4 Navarra S.L.: 898.743 euro.

Euskarabideako zuzendari bat hasieratik dago oso posizio zailean Nafarroako Gobernuarekin, baina gobernu bera etengabe saiatzen da erakusten zailagoa ere egin deza-keela. Beharrezkoa den diruaz gain, Nafarroako euskaldunen aurkako mespretxu berri bat dakar Hezkuntza Sailak hedabideei agindutako dirulaguntza hauen ukatzeak. Eta ostiko latza Azanzarentzat ere. Bere Gobernuarekin ikusi da nola dagoen, euskarazko komunikabideekin zeresanik ez eta Euskarabidean ere arazo frango ditu barne mailan. Non ote da pragmatismoa eta duintasunaren arteko muga?

ETA-REN BIKTIMAK

ari dira duintasuna berreskuratzen. Igandeko Gasteizko Principal antzokiko ekitaldia horren lekuko. Asko da eta garrantzitsua, baina ez nahikoa. Biktimen eremuan ez da duintasunik izango Estatuak ere berak eragindako sufrimendua aitortu arte. Hori bakarrik bete ahal izango da bere osotasunean gatazka gainditzeko den egunean. Bitartean, ez litzateke gutxi sufritzen duen orori begirunea erakustea.